eraikal berriak 27
2009 Uztaila
eraikintzaren arloaren informazio-aldizkaria

## aurkibidea

1. K-21 Kalitate Ereduaren diplomak aurkeztu eta banatu dira Gasteizen

2. Eraikal-en hamar deialdi (1998-2008)

3. ADC eta CIDEMCO arteko akordioa K21 kalitate eredua kudeatzeko

4. Aholkularitza enpresek eraikali buruz duten iritzia

5. Itaun postontzia

# 1. K-21 Kalitate Ereduaren diplomak aurkeztu eta banatu dira Gasteizen

Uztailaren 2an banatu zitzaizkien diplomak K-21 Kalitate Ereduaren araberako ziurtapena lortu duten Arabako 12 enpresari, Gasteizko Gran Hotel Lakua-n.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendariak, Ignacio de la Puerta jaunak, parte hartu zuen ekimen horretan, eta berak banatu zituen diplomak. Modu berean, Eraikal programako arduraduna den Agustín de Lorenzo jauna bertan izan zen.

Bestalde, aipatutako ereduaren aurkezpen txiki bat egin zuten Carlos Nazabal jaunak, CIDEMCOko Ziurtapen Zuzendariak, eta Antonio Martínez-ek, Vadillo Asesores enpresakoak eta Araban K-21 Ereduaren

### K-21 ziurtatuta dauden arabako enpresak

- Boro Instalaciones S.C.
- Calefacción y Gas A. Revilla
- Campo Instalaciones S.C.
- Galeras Hermanos S.C.
- Hotzaile, S.L.
- Izquierdo Fontanería, S.L.
- Martínez de Icaya Inst., S.L.
- Mayco Reparaciones, S.L.
- Royber S.C.
- Santamaría Font-Calef.
- Tecnosat
- Vulcano Mantenimiento, S.L.




Eraikal
EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA
Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PUBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Vivienda, Innovación y Control

gaineko aholkularitza eta ezarpena egiteko arduradunak .

1995. urte inguruan Gipuzkoako eraikuntzako gremioek kalitate-ziurtapen bat sortzeko beharra ikusi zutenean, merkatuko proposamenak aztertu zituzten eta K-21 sistemaren aldeko apustua egin zuten. Urte haietan, aipatutako ziurtapena oso lagungarria zen kalitatearen kudeaketarekin lotuta lorpen garrantzitsuagoak erdiesteko, hala nola ISO ziurtapena lortzeko edo Europako ereduarekin erlazionatutako tresnak ezartzeko. Ziurtapen horrekin, beraz, eraikuntza-enpresetan ISO ezarpena egiteko prozesua laguntzen zen. Izan ere, logikoa den moduan, hornitzaileak homologatzeko beharraz gain, mikroenpresek kudeaketa hobetzeko duten beharrari erantzun behar zaio eta, era berean, sektorean, eta are gehiago krisi garaian, gero eta arruntagoa den intrusismoari aurre egiteko indarra hartu behar da. K-21 sortu zenetik Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak etengabe lagundu eta sustatu du, Eraikal programaren bitartez, eraikuntzako enpresek kalitate-ziurtapen hori lortzeko beharra.

## 2. **Eraikal-en hamar** deialdi **(1998-2008)**

Dagoeneko hamar deialdi egin dira Eraikal programaren barruan. 1998an abiarazi zuen Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak, eta 2001etik aurrera Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren bitartez egin dira laguntza-deialdi berriak. 2009a iritsi da eta une aproposa deritzogu, hamar deialdi egin eta gero, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailarekin batera programaren beraren eta programaren etorkizunaren inguruan hausnartzeko.




Eraikal programaren barruan eragile sustatzaileak dira funtsezko mailetako bat. Izan ere, administrazioaren eta diru laguntzaren onuradun diren enpresen arteko harremanak errazteko balio du; enpresen artean Eraikal programari buruzko sentsibilizazio-lan handia egiten dute; kudeaketa-lanetan bitartekari izaten dira, hala nola proiektuak prestatzean, proiektuen jarraipena egitean, ordainketen kudeaketan, emaitzen hedapenean, eta abar.

Eraikal programaren hamar deialdietan aipatutako eragile sustatzaileek (enpresa-elkarte, elkargo profesional eta enpresa eragileek) izandako esperientzia barne hartzen duen agiri bat argitaratuko da. Garrantzi handikoa da alderdi hau ondo aztertzea, gaur egun bizitegi-sektoreko enpresek kudeaketarekin lotuta bizi duten egoera eta 1998an zutena ez baitira berdinak. Urtetik urtera aurkeztu diren proiektuak eta laguntzak jaso dituzten enpresen etorkizuneko aukerak aldatzen joan dira denborarekin. Horrenbestez, bizitegi-eraikuntzako sektoreko enpresek kudeaketa, iraunkortasun eta berrikuntzaren esparruetan dituzten behar berriei erantzuteko lan egin beharko du Eraikal-ek.

Aipatutako agiria jaso nahi duten enpresek Eraikal-en eska dezakete, kontsulten postontzi elektronikoaren bitartez (eraikal@ej-gv) edo Eraikal-en web-orriko kontsulten aukeraren bitartez, www.euskadi.net/eraikal. Web-orri horretan eskuragarri dago, halaber, aipatutako agiria, euskarri elektronikoan.

# 3. **ADC eta CIDEMCO** arteko akordioa **K21 kalitate eredua kudeatzeko**

ADC-Kalitatearen Garapenerako Elkarteak mikroenpresen eta enpresa txikien etengabeko hobekuntza hobetzea eta horietan guztietan kalitate-sistemak ezartzea du helburutzat. ADCren ardura da, eta berak kudeatzen du, K-21 kalitatea kudeatzeko eta ziurtatzeko ereduaren titulartasuna. 2008ko urritik, ADC eta CIDEMCO akordio batera iritsi eta gero, azken hori da K-21 kudeatzeko arduraduna, ziurtapenak luzatzeko eta ziurtapenaren berrikuspena eta berrikuntza egiteko.

Azpeitian (Gipuzkoa) dago CIDEMCO teknologia-zentroa eta eraikuntzaren sektoreko arlo teknologikoen ikerketa eta berrikuntza ditu xedetzat.

Aipatutako akordioari esker, ADC erakundeak orain arte eskainitako zerbitzuak hobetzen dira. Izan ere, eraikuntzaren sektoreko EB markaketako ziurtapen eta ziurtagirietan espezialista da CIDEMCO eta, horri esker, K-21 kalitate-sistema ikuspegi berri batetik hartzen da kontuan.

Akordioa sinatzen den egunetik CIDEMCOren ardura izango da K-21 kalitate-sistema ziurtatzea, ziurtapena lortzen duten enpresen kasuan, zein ziurtapena berritu behar dutenen kasuan.

K-21 ziurtapenaren hedapena eta ezarpena egiteko ADC erakundeko elkarteetara joko da, orain artean egin den moduan: AFONVI, AROTZGI, INSTAGI, AFOGASCA, AGRUMAP, ERAIKI, ASEFOSAM, besteak beste, Eraikal programak emandako laguntzei esker.

ADC erakundea hasieratik saiatu da K-21 eredua Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntzaren sektorearekin erlazioan lan egiten duten elkarte guztien artean zabaltzen. Eta lan handi horren emaitza gisa, Araban AFOGASCA elkarteak (Arabako Iturgintzako Instalatzaileen Elkartea) K-21 sistemaren ezarpena eta ziurtapena lortu du 12 enpresatan.

Ezin da ahaztu, K-21 sisteman ziurtatu diren enpresek aurrera egitea lortu dutela, K-21 sortu zuten elkarteek aurreikusi moduan. Gehienek jarraitzen dute K-21 ziurtapena edukitzen (berritzen eta eguneratzen), oso gutxik utzi dute bertan behera eta zenbaitek, gainera, ISO:9001 lortu dute, 5S-ren ezarpena egin dute eta EFQM ereduarekin lan egiten hasi dira. Errealitate hori baieztatzeko hainbat datu:

- Ziurtatutako enpresa kopurua: 241 enpresa
- Berritze- eta berrikuspen-portzentaje altua. 2008ko abenduan 183 enpresa ziurtatu zeuden.
- Beste hobekuntza-bide batzuei ekitea, hala nola ISO 9001 edo beste hobekuntza-tresna batzuk. 2008ko abenduan K-21 ziurtapena zuten 11 enpresek ISO 9001 ziurtapena lortu zuten.

ADCtik aldaketa positiboa izatea eta balio erantsia ekartzea espero dugu, bai jada ziurtatuta dauden enpresen kasuan, bai etorkizunean ziurtatuko direnen kasuan.

**Carlos Cestero.**
**ADC-Kalitatearen Garapenerako Elkarteko lehendakaria.**

# 4. **Aholkularitza enpresek** eraikali buruz duten **iritzia**

Aldizkari honetako beste artikulu batek aipatzen duena gogora ekarriz, eragile sustatzaileek Eraikal-ek egindako hamar deialdiei buruz duten iritzia barne hartuko duen argitalpen bat aurkeztuko da, hemendik gutxira. Eraikal-en parte hartzen duten eragile garrantzitsuenen artean aholkularitza-enpresak azpimarratu behar dira. Aipatutako argitalpenean Eraikal-ekin lan egiten duten aholkularitza-enpresek betetako galdeketak argitaratuko ditugu. Zentzu horretan, Eraikal-ekin lan egiten duen edozein aholkularitza-enpresak aukera du bere iritzia Eraikal aldizkarian adierazteko, kontsulten postontzi elektronikoaren bitartez (**eraikal@ej-gv**) edo Eraikal-en web-orriko kontsulten aukeraren bitartez **www.euskadi.net/eraikal**.

**Zer proiektu aurkeztu ditu, Eraikal-ek orain arte egindako deialdietan?**

OPE Consultores enpresak hasieratik parte hartzen du Eraikal programan. Era berean, eraikuntzaren sektoreko euskal elkarteekin lan egin du, gremioen elkarteak barne, eta enpresa anitzekin eta herri-administrazioarekin batera lankidetzan aritu da. 1997an, Eraikal sortu aurretik, beraz, Ascongi-k egindako azterlan bat aurkeztu zen; sektorean kalitatearen kudeaketak zuen egoerari buruzkoa zen. Azterlan hori hartu dugu abiapuntutzat eta 40 eraikuntza-enpresa baino gehiagotan kalitatea, ingurumena eta arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistemen diseinua eta ezarpena egiten lagundu dugu eta, era berean, eraikuntzako gremioentzat kalitatea ziurtatzeko eredu bat diseinatzeko (K-21) eta berrikusteko lanetan

eta prestakuntza-ekintzatan parte hartu dugu, 100 enpresa baino gehiago barne hartuta (gremioak). Behin sektorearen gainean genituen ezagupenak zabaldu eta gero, eta Eraikal-ek eskaintzen dituen aukerak aprobetxatuz, enpresen kudeaketa hobetzeko proiektu desberdinetan lan egin dugu, gure negozioaren orientazioarekin bat eginez. Estrategiako elementuen garapena, giza baliabideen kudeaketa edo prozesuen araberako kudeaketa landu dira, besteak beste, garatutako jardueretan. EFQM ereduaren ezarpenean aurrerapausoak eman dira. Horrela, bi proiektu multzokatu garatu dira (14 enpresek parte hartu dute), jarduera-tipologia desberdinekin lotuta. Amaitzeko, eta azalpenetan luzeegi jo gabe, izaera berritzaile handiko proiektuen garapena azpimarratu nahi dugu. OPE erakundeak, Ascongi-ren babespean eta Tecnum-Donostiako Ingeniari Eskolarekin lankidetzan, enpresa sustatzaile-eraikitzaile baterako ereduzko aginte-taula integral bat diseinatzeko proiektuan parte hartu du; era berean, simulazio-eredu dinamiko bat barne hartu da. Azkenik, proiektu berritzaileen lerro berari helduta, "Ingurumen-legeriaren bilatzaile" bat dugu; eguneratuta dago une oro eta tresna informatiko baten barruan eskaintzen da.

**Eraikal gisako ekimenek bizitegi-eraikuntzaren sektoreko enpresetan kalitatea, iraunkortasuna, segurtasuna eta berrikuntza sustatzeko balio dutela uste al duzu?**

Ez dugu inolako zalantzarik. Azken 10 urteetan programak lortu dituen emaitzak dira horren froga garbiena. Eraikuntzaren sektorerako laguntzak ematen dituen berariazko programa bakarra da Eraikal. Denboran aldatuz joan da eta hasieratik erakutsitako malgutasunari esker, jarduerak eta proiektuak garatzeko orduan lortzen den maila benetan bikaina dela deritzogu.

**Zein da Eraikal programak egindako hamar deialdiei buruzko balorazioa?**

Hamar urte urte asko dira edozein motako ekimenentzat. Eraikal-ek bikain bete du ibilbide hori, baina, heldutasunera iristen den edozein ekimen bezala, emaitzak ondo aztertu beharko lirateke. Gaur egun sektoreak bizi duen krisialdia alde batera utzi behar da pixka bat, eta kalitatearen kultura zabaltzeko etapa gainditu dela ulertu behar da, horrela bakarrik lortuko baita beste balio batzuk sustatzea, hala nola kudeaketa eta berrikuntza. OPE enpresak hainbat ekimenetan parte hartu du, eta izandako esperientzia oinarrian hartuta, etorkizuneko edizioetan aipatutako orientazioak jarraitzeko gomendatuko da berriro ere. 10 urteko ibilbidea bete ondoren, eraikuntzaren sektoreko lehiakortasuna hobetzeko eta epe luzera iraunkortasuna ziurtatzeko laguntza publikoko erreferente argiena izatera iritsi da ERAIKAL.

**Eraikal-etik zer alderdi positibo azpimarratuko zenituzke?**

Malgutasuna, sektorekako espezializazioa, denboran duen jarraikortasuna, eta abar.

**Zer alderdi hobe daitezke Eraikal-en?**

Garatzen dituen jardueren orientazioa berrikusi beharko litzateke, xede duen merkatuaren egungo beharretara hobeto egokitzeko (behar horiek sortu zen urtekoen berdinak dira). Programa benetan interesgarria da Eraikal programa. Zerbait hobetzekotan, administrazio-arloak programan parte hartzen duten alde guztiekin erlazio zuzenago bat edukitzeko beharra azpimarratuko genuke: enpresa eta elkarte onuradunak, aholkulariak, zentro teknologikoak eta prestakuntza-zentroak, edukiak, metodologiak eta informazio-fluxuak optimizatzeko, eta, bide batez, programako emaitzak maximizatzeko.

- **Etorkizunera begira, zer ekintza-lerro barne hartu beharko lituzke Eraikal-ek?**

Lehiakortasuna hobetzeko eta berrikuntza garatzeko ekimenak barne hartzea jarduera-lerro egokia izan daiteke, gaur egungo erakundeek dituzten eskari eta beharretara behar den bezala egokitzeko.



Manuel Olariaga, OPE Consultores enpresakoa. Enpresa-zuzendaritzako profesionalek osatutako sozietate honek bere bezeroen kudeaketa eta emaitzak hobetzea du helburutzat. ETEak dira enpresaren xede, eta ETEetara zuzendutako negozio-estrategiak eta –ereduak garatzen ditu, giza kapitala, pertsonak eta enpresak kudeatzeaz arduratzen da eta kalitatea eta ingurumena kudeatzeko sistemak diseinatzeko eta ezartzeko eta EFQM Bikaintasun Eredua ezartzeko laguntza ematen du. Duela 25 urte sortu zen enpresa, Donostian eta Bilbon ditu bulegoak, eta 2008 amaieran bikaintasunaren Zilarrezko Q jaso du, urteurrenaren ospakizunekin bat eginez.

**Itaun postontzia** eraikal@ej-gv.es

"ERAIKAL BERRIAK" informazio-aldizkariak postaren bidez jaso nahi baduzu zure eskaera itaun-ontziaren bidez "eraikal@ej-gv.es"-era Hartzaile, Enpresa eta Helbidea adierazten.

eraikal berriak 27
2009 julio
boletín informativo del sector de la construcción

# sumario

1. Presentación y entrega de diplomas del Modelo de Calidad K-21 en Vitoria -Gasteiz

2. Diez convocatorias de Eraikal (1998-2008)

3. Acuerdo entre ADC y CIDEMCO para la gestión del modelo de calidad K21 kalitatea

4. Opinión de empresas de consultoría sobre Eraikal

5. Buzón de Consultas

# 1. Presentación y entrega de **diplomas del Modelo de Calidad K-21** en Vitoria -Gasteiz

El pasado 2 de julio se entregaron los diplomas acreditativos a las 12 empresas de Álava que se han certificado con el Modelo de Calidad K-21, en el Gran Hotel Lakua de Vitoria-Gasteiz.

En dicho acto se contó con la presencia del Director de Vivienda, Innovación y Control, del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, del Gobierno Vasco, Ignacio de la Puerta, quien hizo entrega de los diplomas a las empresas. También asisitió el Responsable del Programa Eraikal, Agustín de Lorenzo.

Asimismo, Carlos Nazabal, Director de Certificación de CIDEMCO, junto con Antonio Martínez, de Vadillo Asesores y responsable del asesoramiento e implantación del Modelo K-21 para Álava, realizaron una pequeña presentación de dicho modelo a los asistentes.

### Empresas alavesas certificadas K-21

Boro Instalaciones S.C.
Calefacción y Gas A. Revilla
Campo Instalaciones S.C.
Galeras Hermanos S.C.
Hotzaile, S.L.
Izquierdo Fontanería, S.L.
Martínez de Icaya Inst., S.L.
Mayco Reparaciones, S.L.
Royber S.C.
Santamaría Font-Calef.
Tecnosat
Vulcano Mantenimiento



Cuando allá por el año 1995 los gremios de la construcción en Gipuzkoa detectaron la necesidad de crear un certificado de calidad, analizaron las propuestas existentes en el mercado y decidieron inclinarse por crear K-21, un certificado que entonces servía para poner unas escaleras de acceso hacia mayores logros en la gestión de la calidad como podían ser certificaciones ISO o implantación de herramientas relacionadas con el modelo europeo. Este certificado daba respuesta, al proceso de implantación de ISO en las empresas de la construcción, que les iba a afectar de forma inminente tras el lógico proceso de exigencia en cascada de algún tipo de homologación de proveedores; a la necesidad de las microempresas de mejorar en la gestión y también a la de diferenciarse y luchar contra un fenómeno común en el sector y más en épocas de crisis como es el intrusismo. Desde el primer momento de la creación de K-21 el Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco ha apoyado, a través del Programa Eraikal, la implantación y certificación de las empresas de la construcción en este certificado de calidad.

## 2. **Diez** convocatorias de **Eraikal (1998-2008)**

Ya se han cumplido diez convocatorias de Eraikal. Comenzó en 1998 con el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente y siguió desde el 2001, el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, quien ha venido apoyando su continuidad mediante nuevas convocatorias de ayudas. En 2009, con el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes y tras diez convocatorias, es un buen momento para reflexionar sobre el programa y sobre su futuro.




Dentro del programa Eraikal una de las piezas clave son los agentes promotores, ya que facilitan el contacto entre la administración y las empresas beneficiarias de la subvención; realizan una gran labor de sensibilización entre las empresas sobre el programa Eraikal, realizan la labor de intermediarios o interlocutores en labores de gestión, como podrían ser, la preparación de proyectos, seguimiento de los mismos, gestión de pagos, difusión de resultados, etc.

Se va a editar un documento recoge la experiencia de dichos agentes promotores (asociaciones empresariales, colegios profesionales y empresas tractoras) a lo largo de las diez convocatorias del programa Eraikal. Es muy importante analizar dicha experiencia, ya que la situación actual en temas de gestión de las empresas del sector residencial no es la misma que en 1998, los proyectos que se han ido presentando y las expectativas de las empresas beneficiarias de las ayudas desde dicho año han ido evolucionando. Por lo tanto, Eraikal deberá dar respuesta a las nuevas necesidades en los ámbitos de gestión, sostenibilidad e innovación de las empresas del sector de edificación residencial.

Animamos a aquellas empresas que quieran recibir físicamente el documento lo solicite a Eraikal, ya sea por medio del buzón electrónico de consultas, eraikal@ej-gv, o mediante la opción de consultas de la página web de Eraikal, www.euskadi.net/eraikal. En dicha web estará también disponible el documento en formato electrónico.

# 3. Acuerdo entre ADC y CIDEMCO para la gestión del modelo de calidad K21 kalitatea

La Asociación para el Desarrollo de la Calidad, ADC, tiene como objetivo la mejora continua de las microempresas y pequeñas empresas y la implantación en las mismas de sistemas de calidad. ADC ostenta y gestiona la titularidad del modelo de gestión y de la certificación de calidad K-21 Kalitatea. Desde octubre de 2008, tras el acuerdo entre ADC y CIDEMCO, es éste último, el encargado de gestionar K-21 en lo que se refiere a la certificación y a la revisión y renovación de la certificación.

CIDEMCO es un centro tecnológico situado en Azpeitia (Gipuzkoa) que se dedica a la investigación e innovación en áreas tecnológicas del sector de la construcción.

Este acuerdo constituye una mejora en los servicios que hasta ahora ofrecía ADC debido a que CIDEMCO es un órgano especialista en acreditaciones y certificaciones de marcado CE en el sector de la construcción, lo cual aporta un nuevo punto de vista al sistema de Calidad K-21.

A partir de la fecha del acuerdo, CIDEMCO va a ser la encargada de certificar el sistema de calidad K-21 en las diferentes organizaciones que vayan a certificarse y en aquellas que deban renovar el certificado.

La difusión e implantaciones de K-21 seguirán realizándose promovidas por medio de las diferentes Asociaciones que componen ADC: AFONVI, AROTZGI, INSTAGI, AFOGASCA, AGRUMAP, ERAIKI, ASEFOSAM, entre otros motivos, gracias a las ayudas proporcionadas por el programa Eraikal.

ADC ha tratado de extender el modelo K-21 entre las empresas de todas las asociaciones de la Comunidad Autónoma País Vasco relacionadas con el sector de la construcción. Fruto de estos contactos, en Álava, AFOGASCA (Asociación de Instaladores de Fontanería de Álava) ha concluido un proceso de implantación y certificación en K-21 en 12 empresas.

Es importante contrastar que las empresas certificadas en K-21 han evolucionado como preveían las Asociaciones que generaron K-21.

La inmensa mayoría conserva su carácter de empresas certificadas en K-21, muy pocas han abandonado el certificado y algunas de ellas han ido pasando a ISO:9001, han implantado 5S y han comenzado a trabajar con el modelo EFQM. Algunos datos para constatar esta realidad:

- Número de empresas certificadas: 241 empresas.
- Porcentaje alto de renovaciones y revisiones. A Diciembre de 2008, había 183 empresas certificadas.
- Acceso a otras vías de mejora como ISO 9001 u otras herramientas de mejora. En Diciembre de 2008, 11 empresas que habían estado previamente certificadas K-21, se habían certificado ISO 9001.

Desde ADC, esperamos que este cambio sea positivo y aporte un valor añadido, tanto a las empresas certificadas como a todas aquellas que deseen certificarse en el futuro.

**Carlos Cestero.**
**Presidente de la Asociación para el Desarrollo de la Calidad, ADC.**

# 4. Opinión de empresas de consultoría sobre Eraikal

En otro artículo de este boletín se recoge la eminente aparición de una publicación de la opinión de los agentes promotores sobre las diez convocatorias de Eraikal. Otro agente muy importante de Eraikal es la empresa consultora. En este boletín empezamos la publicación de cuestionarios cumplimentados por distintas empresas consultoras presentes en Eraikal. Cualquier empresa consultora que haya trabajado en Eraikal que quiera dar su opinión en el Boletín Eraikal, no tiene más que solicitarlo, por medio del buzón electrónico de consultas, **eraikal@ej-gv**, o mediante la opción de consultas de la página web de Eraikal, **www.euskadi.net/eraikal**.

**¿Qué proyectos ha presentado en las sucesivas convocatorias de Eraikal?**

OPE Consultores participa en Eraikal desde su inicio, habiendo colaborado con las diferentes asociaciones vascas del Sector de la Construcción, gremios incluidos, así como con un gran número de empresas e incluso administración pública. Partiendo de un estudio realizado en 1997 para Ascongi, previo a la creación de Eraikal, que analizaba la situación de la gestión de la calidad en el Sector, hemos trabajado en más de 40 empresas de construcción en el diseño e implantación de sistemas de gestión de la calidad, el Medio Ambiente y la Prevención de Riesgos y en el diseño de un modelo de aseguramiento de calidad para los gremios de construcción (K-21), su revisión y en actividades de formación-acción en más de 100 empresas (gremios). Pero una vez que nuestro

conocimiento del Sector fue superior, y aprovechando las posibilidades que Eraikal ha ofrecido a este respecto, hemos trabajado en proyectos de mejora de la gestión de las empresas, actividad propia de nuestra orientación de negocio. El desarrollo de elementos de la estrategia, la gestión de recursos humanos o la gestión por procesos, han formado parte de estas actividades. El avance en la aplicación del Modelo EFQM, para el que se han desarrollado dos proyectos agrupados en el que han participado 14 empresas, forma parte de esta tipología de actividades. Por último, y para no resultar excesivamente prolijos en los detalles, queremos resaltar el desarrollo de proyectos con un alto carácter innovador. OPE, bajo el amparo una vez más de Ascongi y en colaboración con Tecnun Escuela de Ingenieros de San Sebastián, desarrolló un proyecto de diseño del cuadro de mando Integral tipo, de una empresa promotora-constructora, junto con un modelo dinámico de simulación. Por último, en esta misma línea de proyectos innovadores, diseñamos y hemos mantenido actualizado, un “Buscador legislativo medioambiental”, soportado en una herramienta informática.

**¿Cree que iniciativas como Eraikal influyen en la impulso de la calidad, sostenibilidad, seguridad e innovación en las empresas del sector de la edificación residencial?**

No nos cabe ninguna duda. Los resultados del programa en estos 10 años así lo avalan. Eraikal es el único programa específico de ayudas para el Sector de la Construcción. Su adecuación en el tiempo y la flexibilidad de su orientación han permitido un nivel de actividad y de desarrollo de proyectos que juzgamos excelente.

**¿Qué valoración hacen de las diez convocatorias del programa Eraikal?**

Diez años son un largo recorrido para cualquier iniciativa. Eraikal ha superado brillantemente ese camino, pero, como cualquier iniciativa que alcanza la madurez, debería ser recreado. Sin hacer especial énfasis en la situación de crisis que actualmente vive el Sector, debería darse por superada la etapa de diseminación de la cultura de la calidad, para potenciar otros valores como la excelencia en la gestión y la innovación. OPE ha participado en algunas iniciativas orientadas en esas direcciones, por lo que, tras haber tomado parte activa en las mismas, se reafirma en recomendar la adopción de estas orientaciones en las futuras ediciones. Tras estos 10 años, ERAIKAL sigue siendo el referente más claro de apoyo público para la mejora de la competitividad del Sector de la Construcción y su sostenibilidad a largo plazo.

**¿Qué aspectos positivos destacaría de Eraikal?**

Su flexibilidad, especialización sectorial, continuidad en el tiempo,…

**¿Qué aspectos se podrían mejorar de Eraikal?**

Debería revisarse la orientación de sus actividades, para ajustarse mejor a las necesidades actuales de su mercado objetivo, que no son las mismas que se daban en los años de su creación. Por sugerir una mejora a un programa que juzgamos muy interesante, propondríamos que el área de la administración que lo lidera, potenciara su relación directa con todos los intervinientes en el mismo: empresas y asociaciones beneficiarias, consultores, centros tecnológicos y de formación, para optimizar contenidos, metodologías y flujos de información, de modo de maximizar los resultados del programa.

**¿Qué líneas futuras de acción considera que debería cubrir Eraikal?**

La introducción de iniciativas para la mejora de la competitividad y el desarrollo de la innovación podrían ser líneas de actuación para su adecuación a la demanda y necesidades actuales de las organizaciones.



Manuel Olariaga de OPE Consultores. Es una sociedad formada por profesionales de la dirección de empresas, dedicados a la mejora de la gestión y resultados de sus clientes. Orientada a las PYMES, centra sus actividades en el desarrollo de la estrategia y modelos de negocio, la gestión del capital humano, las personas, de las empresas y el diseño e implantación de sistemas de gestión de la calidad, medio ambiente y Modelo de Excelencia EFQM. Fundada hace 25 años, con oficinas en San Sebastián y Bilbao, celebramos este aniversario con la Q de Plata a la excelencia, galardón que nos ha sido otorgado a finales de 2008, siendo la primera empresa de consultoría que ostenta dicho reconocimiento